

# “DORJE LAKPA”

## BIDE BERRI BATETIK

MIKEL INORIZAK, IKER MADOZEK ETA MIKEL ZABALZAK  
BIDE BERRI BATETIK ERDIETSI DUTE TONTORRA

### TESTU ETA ARGAZKIAK



**Mikel Inoriza**  
(Vitoria-Gasteiz, 1996)

Bizi guztia mendiko jardunekin estuki loturik darama. FEDME 2018-2021 alpinismo taldeko kidea. Eskarmentu handia du Alpeetan eta Pirineotan; zailtasun handiko hainbat bide ditu eginak. Espedizioak egin izan ditu Pamirrera, Himalaiara eta Kaukasora.



**Iker Madoz**  
(Iruñea, 1993)

Oso gaztetatik bizi izan du mendia. FEDME 2018-2021 alpinismo taldeko kidea. Goi-mendiko gida titulua lortu berri du, eta Alpeetan eskarmentu handia du. Beste hainbat lekutara ere bidaiatu izan du: Nepal, Pakistan, India, Alaska eta Peru, esaterako.



**Mikel Zabalza**  
(Iruñea, 1970)

Alpinista eta eskalatzailer ezaguna, goi-mailako erreferentzia mendizaleon artean. Hogeita hamazortzi espediziotan hartu du parte: Nepalen, Indian, Tibetean, Patagonian, Tierra de Fuegon, Groenlandian eta Antartidan, besteak beste.





Madoz eta Zabalza Dorje Lakpako gailurrera heltzen. ARGAZKILARIA: Mikel Inoriza



Espainiako Federazioko Alpinisten taldean sartu ginenetik, buruan genuen erronkez beteriko hiru urte hauen amaiera: atzerrira espedizio bat egiteko aukera izango genuen. Pakistango Karakorum genuen begiz jota, eta pandemiaren ondorioz urte bete beranduago ekin genion; helmuga aldatu zen ordurako.

Hilabete baten faltan, Federaziotik bidaia aurrera eramateko arazo ekonomikoak zeudela jakinarazi ziguten, eta beraz etxean geratuko ginela sinesten hasiak geunden. Hala ere, bi aste falta zirelarik berri onak heldu zitzaizkigun. Bagindoazen Nepalera! Ezustean harropatu gintuen arren, ilusio handiz ekin genion dena presatzeari eta irailaren 28an abiatu ginen.

Taldea bikaina zen, Mikel Zabalza zen taldeko buru, aurkezpenik behar ez duen alpinista nafarra. Honetaz gain, taldekideak hauek ziren: Ruben Sanmartin (aragoiarra), Ander Zabalza (nafarra), Javier Guzman (madrildarra), Iker Madoz (nafarra) eta ni neu, Mikel Inoriza (gasteiztarra).

## Gure asmoa hegoaldeko ertz batetik saiatzea zen

Egin beharreko izapide edo agiri guztiak eguneratu (PCR, txertoa, etab.) eta Katmandura onik iritsi ginen. "Thamel" auzoko hotel-txo batean bi egun pasa genituen. Mendien beharko genuen janaria, gasa eta beste material batzuk erosteko aprobeztatzeaz gain, Nepalgo Turismo Ministerioaren baimena lortu genuen; Langtang bailaran kokaturik dagoen "Dorje Lakpa" mendia (6966 m) igotzeko behar genuen oniritzia. Ordura arte, Dorje Lakpa igo izan den saiakera guztietan Langtang bailaratik izan zen; mendebaldeko ertza jarraitzen duen bidetik. Gure asmoa, aldiz, Langtangetik hegoalderantz dagoen bai-

Autobus bidaian ateratako argazkia, Katmandutik Thulo Bhotang-era. Iker Madoz, Mikel Zabalza, Mikel Inoriza, Javi Guzmán eta Rubén Sanmartin (ezk-esk). ARGAZKILARIA: Ander Zabalza





Inoriza, Zabalza eta Madoz aklimatazio menditik jeisten, Khansurn-eko Ekialdeko ertzean. ARGAZKILARIA: Ander Zabalza

lara batetik saiatzea zen, hegoaldeetik abiatuz lehen igoera egiteko nahia baikenuen.

Katmandutik "Thulo Botang" izeneko herri batera autobusez joan ginen; bete betea zihon: materiala, janaria, espediziokideak, gu eta abar. Bidaia luzea izan zen, autobusa bultzatzaera ere jaitsi behar izan genuen pare bat aldiz, baina azkenean iritsi ginen. Azken geltoki honetatik kanpalekua kokatu behar genuen tokira iristeko, bost eguneko trekkinga genuen aurretik. Lehenengo egunak oso euritsuak izan ziren, nahikotxo busti ginen eta ia-ia ez genuen zerua ikusi, zer esanik ez inguruko mendiak. Hirugarren egunean Panch Pokari (Nepalera bost laku esan nahi du) deituriko lakutxo batzuetara heldu ginen, leku oso polita zen, baina tamalez ezin izan genuen asko gozatu eguraldiaren ondorioz... Lakuetaraino bidea nahiko ona zen, esan daiteke ibilbidea

nahiko turistikoa dela, baina hemendik aurrera kontua aldatu egin zen; azken bi egunak artzainen bideak jarraituz egin behar izan genituen. Bidea bera zailagoa izateaz gain, altuera hartzen ari ginen, 4000 metrotik gora jandantik. Paisaia ere zeharo aldatu zen, oiha netik atera eta mendira iritsiak ginen. Kanpamentu nagusia kokatu behar genuen tokira iritsi aurretik, laino artean, gure helburua ikusteko aukera ere izan genuen: Dorje Lakpa. Kanpaleku basea glaziarraren morrena zahar batek sorturiko harantxo batean kokatu genuen, artzainek udaran erabiltzen dituzten harrizko eraikuntza batzuen ondoan. Gutxi gorabehera 4200 metrora geunden, eta tokia ezin hobea zen, ura bertan geneukan eta zelaitxo lauak zeuden dendak jartzeko. Gainera, granitozko bloke handiak zeuden, atsedean egunetan *boulder* pixka bat egiteko.

Seigarren egunean, denbora galdu gabe, gorantz abiatu ginen eta bidea ondo aztertu genuen, materiala eramateko aprobetxatuz. Zatiarik zailenak glaziarraren morrenak izan ziren, eta bidea bilatu ondoren, satellite-irudietan fitxatua genuen leku batera heldu ginen. Gure lehenengo kanpalekua kokatzeko toki ederra zen: 4800 metroko altueran, morrena gainean, lakutxo baten ertzean. Bertan kokatu genituen hiru dendatxoak eta barruan utzi genuen motxiletan generaman material guztia, atsedean pixka bat hartu ondoren behe-kanpalekurako bideari ekiteko.

Behe-kanpalekuan egun oso bat atsedean hartzen egon eta gero, berriz ere gora igo ginen, oraingo honetan 4800 metroko altueran lo egiteko asmoz. Aklimatazioarekin jarraitu nahi genuen; bertan lo egin eta hurrengo egunean gorantza jarraitu. Aklimatatze

kanpaleku aurreratua mendebaldeko lepo azpira igo genuen, 5300 metroko altuerara. Bertan lo egin eta gero, mendebaldeko lepora igo (denda eta guzti) eta Kanshrun mendian amaitzen den ertzean gora abiatu ginen. Dendak 5600 metroko inguruko altueran kokatu eta gero ertzetik jarraitu genuen, 5900 metrora dagoen gailurtxo batera iritsi arte. Ez zen gailur nagusia, baina elurraren egoerak eta bidearen zailtasunak gorago igotzea ekidin zizun. Aklimatazioarako nahikoa izango zela iruditu zitzaigun guztioi, beraz, aurretik ertzean utzitako dendara jaitsi ginen lotara. Honekin gure aklimatazio prozesuari amaiera eman genion, baina arazo larri bat genuen, kontrolatu ezin genuena: eguraldia asko okertuko zela iragarri ziguten satellite-telefonoaren bidez. Behe-kanpalekuan egun eguzkitsua bat pasatu ondoren iritsi zen iragarritakoa; euria hasi zen eta ia lau egun osoz egin zuen jarraian. Hainbeste orduz euripean egon ostean, dena heze-hezea zegoen; ia egun guztia dendan barruan pasatzen genuen, eta egia esan, psikologikoki oso gogorra izan zen, gorago euri hori guztia elurra izango zela bagenekielako...

### Euria hasi eta ia lau egunez egin zuen jarraian; psikologikoki oso gogorra izan zen, gorago euri hori guztia elurra izango zela bagenekielako

Azkenik, atera zen eguzkia, eta gutxinaka gailurra egiteko saiakera etor zitekeela sentitzen genuen. Hala ere, tontorrak elurrez beteta zeuden, eta argi ikusten genuen mendian baldintzak zeharo aldatuak aurkituko genituela, horrek gure aukerak zailduz. Bi egun oso

eguraldi onarekin behe-kanpalekuan itxaron eta gero, gorantz abiatu ginen, eta 5000 metroko altueran utzitako dendan nola aurkituko genuen kezkarakin. 4600 metroko altueratik aurrera elur asko zegoen, eta aztarna ireki behar izan genuen oinetako hutsean, alpinismoko botak dendan baikenituen. Ez genuen dendak kokatutako tokiaren arrastorik ikusten, dudak ere izan genituen egon ginen tokia topatzen. Eztabaidak izan ondoren, elurretan ikusten zen menditxo txiki bati ostiko pare bat eman eta bertan aurkitu genuen, guztiz estalita, metro bat baino gehiagoko elur berriaren azpian. Eskerrak bi pala txiki genituen; hauekin lanean izan ginen material guztia ateratzea lortu genuen arte. Gauzak lehortzen jarri eta beste bi dendak muntatu genituen. Lehen erronka hura lorturik, material biltegia eta dendak elurpean aurkitu genituen, osorik.

Biharamunean, glaziarrean gora ginen, arestian aipaturiko bi taldeetan. Hasieran elur berriak ez zigun traba handirik jarri, baina altuera pixka bat irabazi genuenean oso neketsua bilakatu zen bidea irekitzea... Elur berriaren gainean geruza gogortu bat zegoen, eta aurrera gindoazela, ez genuela ezer aurreratzen zirudien. Ordu batzuen ondoren, eguzkiaren eraginez elurra okerrago jartzten hasia zen, eta gelditzea erabaki genuen. 5700 metro inguruko altueran kokatu genuen dendak, glaziarrean bertan. Ruben, Ander eta Javik zerbait jan eta edan ostean aurrera jarraitu zuten; hurrengo gauean hegoaldeko aurpegia goitik behera zeharkatzen duen korridore bat eskalatzea nahi zuten. Hiru ordu behar izan zituzten 300 metroko desnibela egiteko, eta pareta azpian kokatu zuten dendak.

Hurrengo egunean, goizeko sei etan abiatu ginen, eta lehen argi-izpiekin, beste taldeek jarraitu behar zuten bidea ikusten hasi ginen; asko poztu ginen frontalen argiak ikusten

bigarren egun honetan, bi talde osatu genituen, gailur saiakerarako izango ziren talde berdinak. Iker, Mikel eta hirurok aklimatazioarekin amaitzeko balio izango zuen mendirantz abiatu ginen, 5450 metroko altuerara iritsi arte. Ruben, Ander eta Javi, aldiz, Dorje Lakpako hegoaldean dagoen glaziarrean sarrera aztertzerantz joan ziren. Aklimatazio honen ostean, behe-kanpalekuan bi egun oso igaro genituen. Zama-eramaileen zestoekin joan ginen egur bila, arratsaldeak sutondoan pasa ahal izateko. Denbora idazten, irakurtzen eta kartetan jolasten pasatu genuen. Gainera, *boulder* interesgarri batzuk egiteko aukera ere izan genuen, granitozko harri handietan gure eskalatzeko grina asetuz.

Aklimatazio-faseko azken jardura Dorje Lakpako mendebaldeko lepotik beste alderara doan ertzean egin genuen. Lakuan genuen

Inoriza eta Rubén Dorje Lakpa atzean daukatela. ARGAZKILARIA: Ander Zabalza





ez genituelako, horrek dezente gorago egon behar zutela esan nahi baitzuen. Zoritxarrez, beraiek saiatu behar zuten bidearen konoari buelta eman eta gero, sokak jasotzen ikusi genituen glaziarrean... Hotzaren eta mendiaren baldintza zailen eraginez, jaitsi egin behar izan ziren luze batzuk eskalatu ostean. Hotz handia pasa zuten, argi ikusten zen beraien aurpegietan, eta hortxe amaitu zen beraientzat gailurrera igotzeko saiakera: eguraldiak ez zien aukerarik eman, eta etxera bueltatzeko garaia iritsi zitzaenez, azken saiakera izan zen beraientzat.

Guk, hirurok, gorantz jarraitu genuen, Dorje Lakpako hegoaldeko leporantz. Egunsentiko hotza nabaritzen genuen, eta haizeak hotz sentsazioa areagotzen zuen. Lepora iristen ari ginela, lehen eguzki izpiek jo zigutenean, denda muntatzea erabaki genuen, ura urtu eta gorputza berotzeko. Gure ideia lepoan lo egitea zen, hurrengo egunean gailurrera saiakera egiteko. Hirurok dendan sartu ginen eta berotu bitartean, satellite-telefonari esker, azken eguraldi iragarpenak jakiteko aukera izan genuen. Zirt edo zart egin beharra zegoen, hurrengo egunetan haize-bolada indartsuak egongo zirela baitzioen iragarpenak, eta horrek gailurrera iristea lortzeko aukerak dezen-

Inoriza eta Madoz Dorje Lakpa gailurrean  
ARGAZKILARIA: Mikel Zabalza



te murriztuko baitzituen. Hiruron artean labur hitz egin eta gero, erabakia argia zen: "Gaur saiatuko gara gailurrera iristen".

Goizeko hamarrek eta erdietan atera ginen dendatik, 6150 metroko altueran, denda gabe eta bibak egiteko materialik gabe: igo behar ginen hegoaldeko bide berdinetik jaitea zen gure asmoa. Leku honetatik barrena norbait saiatzen zen lehen aldia zen. Tokia ikaragarria iruditu zitzaigun. Hegoaldetik gora, ttipi-ttapa egin genuen, 60-65 graduko maldetan gora,

egindako metroak sumatzen genituen hanketan, eta altuera are gehiago. Azkenik, arratsaldeko hirurak eta erdiak aldera gailurrera iritsi ginen: Dorje Lakpa! Iker eta biontzako sentsazio berria zen, garaiera horretako (6966 m) gailur batean eta bide berri batetik; Mikel Zabalzak ibilbide luzea dauka horrelako mendietan, baina guk ez. Poztasuna oso nabaria zen: besarkada handi batekin ospatu genuen gailurra. Gailurretik Shisha Pagma oso gertu ikusten zen, baita inguruko Langtang Lirung, Lenpo Gang,



Kanshurn-eko ertzean egindako bibaka, 5600 metroan. ARGAZKILARIA: Ander Zabalza

Gurkapo Ri eta abar. Urrunean Nepalgo mendi altuenak ere ikusten ziren; Everest, Lhotse, Makalu eta Cho Oyu. Argazki azkar batzuk atera ostean, beheko bidearekin hasi ginen, gaua gero eta gertuago baikenuen, eta jaitsieraren gehiengo egunez egin nahi baikenuen. Kontu handiarekin egin behar izan genuen, askotan bizkarrez (hormari begira), nekea eta maldaren inklinazioaren eraginez.

Gaua sartu berri zela iritsi ginen dendara, oso nekatuak, baina onik, eta batez ere oso

pozik. Zopa pare bat eta infusio bat hartu genuen eta segituan lotara joan ginen, nekeagatik ez baikeneukan ezer solidorik jateko gogo handirik. Gaua luzea izan zen, ezin izan genuen lo askorik egin; hirurok kanpaleku nagusira iristea genuen buruan, eta ahal izan genuen bezala pasa genuen gaua. Goizean dena jaso genuen, hotz handia egiten zuen eta kanpaleku nagusirako bide luzea hasi genuen. Bidean zehar utzitako material biltegiak jasotzen joan ginen; eguna luzea egin zitzaigun. Azkenik iritsi ginen

kanpalekura, eta han geneuzkan zain taldeki-deak, sukaldaria eta lagun nepaldarrak. Orain bai, igoera amaitutzat eman genezakeen!

Bi egun kanpalekuan igaro eta gero, bueltako trekkingari ekin genion, eta hiru egun geroago Katmandun geunden. Esperientzia honekin asko ikasi eta disfrutatu ostean, Euskal Herrira itzuli ginen azaroaren 4an. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu taldekide guztiei eta Nepalgo mendi ederrenei, ziur ez dela izango urruneko gailur horiek bisitatzen ditugun azken aldia.